

ONARPEN DATA 2025-01-23

AMOROTON AUZOTAXI ZERBITZUA ERABILTZEAGATIK DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA ETA OINARRIAK 2025

1. artikulua.- Dirulaguntzaren xedea.

Deialdi eta oinarri hauen xedea 2025 urtean zehar Amоротoko herritarrek kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa erabiltzeagatik dirulaguntzen emakida arautzea da.

2. artikulua. - Aurrekontu kreditua eta dirulaguntzaren zenbatekoa.

Dirulaguntza hauek onartzeko dagokion kreditu erabilgarria 500,00 eurokoa da. Gastu hau 2025 ekitaldiko aurrekontuko 22707.230 (auzo-taxia) diru-ataletik ordainduko da.

Nolanahi ere, hasierako zenbatekoa nahikoa ez balitz eskaera guztiei erantzuteko zenbateko gehigarria finkatu ahal izango da eta aplikatzeko deialdi berri bat ez da egin behar izango. Edozein modutan, zenbateko honen efikazia kreditu-erabilgarritasuna dagoela jasotzen duen adierazpenari baldintzatuta geratzen da, dagokion erabakia hartu ostean, eta edozein kasutan, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 58.2 artikulua aurreikusten dituen baldintzekin bat.

3. artikulua.- Onuradunak.

Eskaera egin dezakete eta onuradun izan daitezke jarraian zehazten diren betebeharrak betetzen dituzten pertsona fisikoek:

- a) Amoroton erroldatuta egotea eskabide-orria aurkezten den egunean eta baita garraio zerbitzua jasotako datetan.
- b) Adinez nagusi direnentzat, ondorengo egoeraren baten egotea justifikatzea:
 - 65 urtetik gora izatea.
 - Ezgaitasunen bat egiaztatuta izatea, gutxienez %33koa. Beti ere mugikortasun edo/eta menpekotasun arazoak izanda, gutxienez 7 puntu mugikortasun baremoan, edo mugikortasun A, B, C eta D letrak, ezgaitasun ziurtagiriaren arabera.
 - Osasun arrazoiengatik mugikortasun urria izatea aldi baterako. Egoera hau egiaztatu egin beharko da.
 - Bakarrik bizitzea eta ez izatea autorik ezta gida-baimenik. Edo bakarrik bizi ez arren, bizikidetza-unitatean elkarrekin bizi direnen batek ere ez izatea autorik ezta gida-baimenik.

ONARPEN DATA 2025-01-23

c) Adin txikikoak direnentzat, ondorengoak betetzea:

- Guraso edo legezko tutoreen baimen espresua izatea.
- 14 urtetik beherakoak, baimena izateaz gain, adinez nagusia den norbaitekin joan beharko dira beti eta horrela egiaztatu beharko da.

d) Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, Diru-Laguntzen Orokorrak, 13. artikuluan, aurreikusten dituen debekuetako baten ere sartuta ez egotea.

4. artikulua.- Eskaerak eta beharrezko dokumentazioa.

4.1.- Eskaerak Amorotoko Udalean aurkeztu beharko dira 2026eko urtarrilaren 15era arteko epean, bai aurrez-aurre bai baliabide telematikoen bitartez, horretarako prestatutako ereduak erabiliz. Ereduak udal bulegoetan bertan eta udalaren webgunean eskuratu daitezke.

Baita, aurkeztu ahal izango dira eskaera-orriak urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aurreikusten dituen gainerako bideen bitartez.

4.2.- Aurkeztu beharreko agiriak:

- Eskaera-orria, eskatzaileak edo bere ordezkariak behar bezala beteta eta sinatuta.
- Taxilariak emandako faktura/erreziboak. Fakturan argi agertu behar dira ondorengo datuak: erabiltzailearen izen-abizenak, egindako bidaia nondik nora, data, ordua, ordaindutako prezioa, fakturaren zenbakia eta taxilariaren sinadura ordainketa-seinale.
- Eta hala badagokio, oinarri honetako 3.b) artikulua zehazten dituen egoerak ematen direnean, egoera egiaztatzen duen agiria. Besteak beste, ezgaitasunaren ziurtagiri ofiziala edo aldi baterako mugikortasun urria egiaztatzen duen mediku-txostena.

Amorotoko Udalak, eskura dituen datuen bitartekotza-sistemen bidez, bere esku dauden edo beste administrazio batzuen esku dauden datu edo/eta dokumentuei buruzko egiaztapenak egingo ditu, 39/2015 Legearen 9. artikuluan emandako lege bidezko gaikuntza dela eta; salbu eta berariaz aurka egiten badu interesatuak (kasu horretan dokumentazioa aurkeztu beharko du).

4.3.- Aurreko atalean zehaztutako agiriak ez dira aurkeztu behar izango aurretik Amorotoko Udalean aurkeztu badira, beti ere, agiri horiek edo hauek jasotzen dituzten datuak aldatu ez badira. Atal honetan aurreikusitako kasuan, eskatzaileak udaletxeari, datu/agiriok udaletxean daudela idatziz esan beharko dio, eta aldaketarik ez dela egon aitortu beharko du erantzukizunpeko adierazpen bidez.

Aurrekoan esandakoaren kalte gabe, dirulaguntza indarrean dagoen aldian sortzen den edozein aldaketa udaletxean jakinaraziko da, eta kasu honetan, egoera barria erakusten duten agiriak aurkeztu beharko ditu.

4.4.- Aurkeztutako eskaera-orrian edo dokumentazioan zerbait falta bada edo zuzendu daitekeen akatsen bat badago, eskatzaileari 10 (hamar) egun balioudun emango zaizkio

ONARPEN DATA 2025-01-23

falta diren agiriak aurkezteko edo akatsak zuzentzeko. Eta jakinaraziko zaio okerrak zuzendu ezean eskaera atzera egindakotzat joko dela.

Eskaerak aztertu ondoren edo geroago, edozein momentutan, Udalak interesdunari eskatu ahal izango dio 4.2 atalean aurreikusi ez den dokumentazio osagarria aurkeztea ikusteko bidezkoa den dirulaguntza onartzea edo ukatzea.

4.5.- Eskaera egitean eskatzaileak oinarri hauek eta deialdia baldintza barik onartzen ditu, eta baimena ematen dio Amorotoko Udalarari dirulaguntza bideratzeko beharrezko datuak bildu eta egiaztatzeko.

5. artikulua.- Diruz lagunduko den xedea.

Diruz lagunduko dira honako betebeharrak guzti hauek betetzen dituzten bidaiak:

a) Kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoan (taxia) egindako bidaiak, taxi-lizentzia duten taxilariarekin.

b) 2025 urtean egitea, hau da, 2025eko urtarrilaren 1a eta abenduaren 31a bitartean.

c) Egindako ibilbideak ondorengo arteen egotea:

- Amorotoko baserri auzoetatik herrigunera joateko, eta alderantzizkoak.
- Lekeitioko bus-geltokira edo Lekeitioko beste leku batera joateko, eta alderantzizkoak.
- Mendexako mediku kontsultara joateko (medikuak kontsulta bertan daukan egunetan).

Hortik kanporako zerbitzurik ez da diruz lagunduko.

d) Honako egun eta orduen barruan egitea:

- Astelehenetik igandera 07:30tik 20:00ra.
- Ordutegi horretik kanpo, larrialdiko zerbitzuak beharrez gero, baloratuko da kasuz kasu.

Erabiltzailea arduratu beharko da zerbitzua taxilariarekin adosten eta zerbitzu eman eta ordaindu denaren faktura justifikagarria eskatzeaz.

6. artikulua.- Dirulaguntzen zenbatekoa.

6.1.- Baldintzak betetzen dituen bidai bakoitzari emango zaion dirulaguntza.

Erabiltzaileak bidai bakoitzean ondoren azaltzen den kopurua ordainduko du:

- Baserritik Amorotoko herrigunera (eta alderantziz): BI (2,00 €) euro.
- Amorotoko herrigune edo baserritik Lekeitioko bus-geltokira (eta alderantziz): HIRU (3,00 €) euro.
- Amorotoko herrigune edo baserritik Lekeitioko beste leku batera (eta alderantziz): LAU (4,00 €) euro.

ONARPEN DATA 2025-01-23

- Amоротoko herrigune edo baseritik Mendexako mediku-kontsultara (eta alderantziz):
BI (2,00 €) euro.

Kostuaren gainerakoa Amоротoko Udalak dirulaguntza bidez ordainduko dio eskatzaileari.

6.2. Onuradun bakoitzak gehienez diruzlagundutako 100 bidai/urtean egiteko eskubidea izango du.

6.3. Joan-etorria egiten denean, bakoitza bidai bat bezala hartuko da, bi bidaia guztira.

6.4.- Udaletxean 100 bidaien muga handitzea eskatu ahal izango da, salbuespenez, arrazoi handiagoren batengatik. Eskaera egin ondoren, egoera baloratuko da, eta gehieneko bidaia kopurua handitu ahal izango da.

6.5.- Bidaiaren prezioa taxilariak ezarriko du indarrean dauden tarifa ofizialen arabera.

6.6.- Artikulu honetan aurreikusitakoaren barruan onuradunei dagokien dirulaguntzaren zenbatekoa, beti ere, baldintzatuta geratuko da diru-izendapenari, egokia eta behar bestekoa izango dena.

Baimendutako kreditua agortu bada, 9. artikulua aipatzen duen jakinarazpenaren kalte barik eta 2. artikulua aurreikusten duena gehitzeko aukera kontuan hartuta, diru-izendapena agortu ondoren egin diren bidaiak ez dira diruz lagunduko, dirulaguntza jaso den kasuan zenbateko horiek itzuli egin beharko dituzte.

7. artikulua.- Dirulaguntzaren kudeaketa eta ebazpena.

7.1.- Prozedura norgehiagokarik ezezkoa (concurrentia no competitiva) izango da.

7.2.- Prozedura udal idazkaritzak kudeatuko du. Instrukzio organoa udal idazkari-kontuhartzailea izango da.

Eskaera-orriak aurkeztu ondoren, eta zuzenketarik egin behar den kasuan, hauek zuzendu ondoren, udal zerbitzu teknikoek egindako eskaerak aztertuko dituzte, agiri guztiak aurkeztu diren eta baldintzak betetzen diren ikusteko. Zerbitzu teknikoek azterketaren berri alkatetzari emango zaio. Honek, aurkeztutakoak ikusi eta gero, dagokion erabakia hartuko du.

7.3.- Dirulaguntza onartzeko hasierako erabakiak deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntza jasotzeko eskubidea emango dio onuradunari, eta erabakian jasoko da onartutako dirulaguntzaren zenbatekoa. Ordainketa eskatzaileak adierazitako banku-kontuan egingo zaio, gehienez jakinarazpenetik hilabeteko epean.

7.4.- Prozeduraren gaineko erabakia hartzeko eta jakinarazpena egiteko epea ez da sei hilabete baino gehiago luzatuko. Gehienezko epe hau igaro bada erabakiaren gaineko

ONARPEN DATA 2025-01-23

bidezko jakinarazpenik barik, interesdunek ulertu beharko dute eskaera, administrazio-isilbidez, atzera bota dela.

Erabakiaren gaineko jakinarazpena interesdunei urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40 artikulua eta hurrengoek aurreikusten dutena jarraituz egingo da, indarrean dagoen legediak xedatzen duenaren arabera publizitatea eman behar zaiolarik.

Hartutako erabakiak administrazio bideari amaiera emango dio, eta erabakiaren kontra Udaleko alkatearen aurrean berraztertzeko errekurtsua tartekatzeko aukera egongo da, edo baita zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsua tartekatzeko dagokion auzitegian. Guzti hori, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikulua eta hurrengoek, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 Legearen arabera.

8. artikulua.- Dirulaguntzaren zuriketa.

Eskaerarekin batera aurkeztutako taxi zerbitzuaren erabilera fakturekin justifikatuta geratuko da emandako dirulaguntza.

9. artikulua.- Bateragarritasuna beste dirulaguntza batzuekin.

Dirulaguntza hau, helburu bera duten beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu, nazionala edo europearra, edo nazioarteko beste erakunde batzuetako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin bateragarriak dira, ez bada dirulaguntzen berezitasunetako bat bateragarria ez izatea. Edozein modutan, gainfinantzaketa ezinezkoa izango da, horretarako onuradun bakoitzak egindako bidaiekin lotuta jasotako diru-laguntzen guztia hartuko da kontuan.

10. artikulua.- Dirulaguntzaren publizitatea (onuradunak).

10.1- Onuradunek jasotako dirulaguntzaren gaineko publizitatea ematera behartuta daude artikulua honek aurreikusten duen eran.

10.2- Dirulaguntzaren izaera kontuan hartuta publizitatea bezala ulertuko da dirulaguntza gisa jasotako zenbatekoak Foru Ogasunari jakinaraztea, kasuan kasuko zerga-ondorioetarako.

10.3- Udalak onuradunei eska ahal izango die aipatutako publizitate neurriak hartu dituztela jakinaraztea edo, ofizioz egin Udalak.

11. artikulua.- Itzulketa.

Itzulpena Dirulaguntzen Lege Orokorraren, hau garatzen duen Erregelamendua, aplikagarria den gainerako araudiak eta oinarri hauek xedatzen duen kasuetan eta azaldutako moduan egingo da.

ONARPEN DATA 2025-01-23

12. artikulua.- Araudi aplikagarria.

Oinarri hauetan aurreikusi ez den guztirako azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorrak, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuz onartutako legea garatzen duen Erregelamenduak eta aplikagarria den gainerako araudiak xedatzen dutena aplikatuko da.

Amoroton, 2025eko urtarrilaren 23an.

DILIGENTZIA.- Deialdi eta oinarri honek Udalbatzak 2025eko urtarrilaren 23an egindako Osoko Bilkuran onartu zuela egiaztatzen dut.

Amoroton, 2025eko urtarrilaren 28an.

UDAL IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA,